

“Sarean Euskaraz”

Deskribapena: Sarean euskara erabiltzeko kanpaina bat azaltzen da iragarkian. Animalia ezberdinez moztutako pertsonak ageri dira bideoan.

Oilar bat ageri da goizean goiz kukurrukuka, baina *Be Bee Beee* esanez. Ondoren, errepide ertzeko iragarki-panel handi batean hauxe ageri da: zerealez beteriko katilu bat eta *Be Be Beee* hitzak.

Jarraian, bulego batean txerri bat ageri da telefonoz hizketan ordenagailu aurrean *Be Bee Beee* esanez. *Facebook* begiratzen ari da.

Orain, behi bat ageri da kalean paseatzen erosketa-poltsa batekin eta norbait agurtzen du *Be Bee Beee* esanez.

Kafetegi batean, asto bat azaltzen da tablet bat eskuetan duela.

Bi katu ageri dira telefono mugikor bat begiratzen, *Be* eta *be* esanez.

Logela batean iratzargailuak jotzen du goizeko 11:00etan *Be Bee* hitzen soinuarekin eta txoritzar batek itzali egiten du astindu batekin. Txoritzarrek mezu bat idazten du *Facebooken*: *txio txio*

Bulegoan dagoen txerriak telefonoa eskegi du *Be* esanez, eta txoritzarren mezua jasotzen du *Facebooken*. Kurrinka hasten da eta *Kurrin Kurrin* idatziz erantzuten dio mezuari.

Lehen agertu diren bi katuak belardi batean etzanda daude orain, eta miauka hasi dira. *Miau miau* idazten ari dira *Facebooken*, mugikorretik.

Kafetegian dagoen astoak mezu bat irakurtzen du tabletan eta arrantzaka hasten da bat-batean. Astoaren arrantza entzutean, kafetegiko zerbitzari tximinoak eskuartearen duen edalontzia lurrera botatzen du eta zalapartaka eta garrasika hasten da.

Iragarkiko OFF ahotsa:

Bakoitzak berea. Sarean EUSKARAZ